

33º
zbk



Beasaindik

ENERO 2019 URTARRILA

Udal Aldizkaria Revista municipal

Korrika berdintasunerantz

Pasos firmes hacia la igualdad



GUTUNA

Aitor Aldasoro
Beasaingo alkatea



Gizarte parekideagoa eraiki nahi badugu erakundeetik ezinbestean urratsak egin behar ditugu, baina betiere horiek herriko eragile, enpresa, kirol eta kultur talde eta herritarrekin batera egiten baditugu.

Pixkanaka-pixkanaka gauzak aldatu nahi baditugu guztiun implikazio eta borondatea funtsezkoa da. Aipatu eragile guztien eta beasaindarren parte hartzea da Herrilab egitasmoaren bitartez lortu nahi duguna, norberaren errealtitatea gertutik ezagutzeko eta non eta nola eragin jakiteko, izan enpresa munduan, herriko taldeetan, hezkuntza alorrean edota norbanako ohituretan.

Azken urteotan ahalegin horretan zenbait egitasmo abiarazi ditugu. Adibidez, kirolean emakumearen presentzia indartzeko eta aukera berdintasuna bermatzeko, Loinatz Futbol zelaian belar artifiziala jarri genuen eta Goierri Gorri emakumeen futbol taldeari dirulagunza handiagoa emango diogu aurten.

Arrakasta izugarria izan du, baita ere, Hari Matazak egitasmoak. Pertsona ugari gerturatu dira indarkeriaren aurka matazak jostera eta arazoaren 25ean haritutako oihal guziekin apaindu genuen udaletxeko plaza eta plazaazpia, berdintasunaren aldeko apustua eta indarkeriaren aurkako jarrera bistazteko.

BERDINTASUNERANTZ, HERRITARREN ESKUTIK

Poliki-poliki ari da gizarte aldatzen, ekintza handi zein txikien bitartez ari gara pausoak ematen eta bide horretan jarraitu behar dugu, guztiun artean, gizarte parekideagoa, solidarioagoa, justuagoa eta berdinzaileagoa eraikitzeko.

La implicación y la participación de la ciudadanía, claves para la igualdad

Todo cambio en la sociedad requiere de la voluntad y el compromiso de todas y todos nosotros. Conocer la realidad y el día a día de los beasindarras, pero sobre todo de las mujeres beasindarras, es lo que busca el proyecto Herrilab en esta primera fase. Queremos conocer tus sensaciones, experiencias... para poder incidir, después, en dichos aspectos desde las administraciones, sea en el ámbito laboral o doméstico.

Persiguiendo ese mismo objetivo, durante estos últimos años hemos realizado diversas actuaciones, unas más grandes, otras más pequeñas, pero igual de significativas todas. Hemos impulsado la presencia de la mujer en el deporte con el cambio de césped en el campo Loinatz para aumentar su uso, Goierri Gorri contará con mayor subvención este año y la iniciativa Madejas Contra la Violencia Machista ha sido todo un éxito.

HOMENAJE A LAS Y LOS COMERCIANTES JUBILADOS EN 2018



Abenduaren 28an 2018an erretiratutako merkatariei omenaldia egin zitzaien. Ekitaldian parte hartu zuten Aitor Aldasoro alkateak eta Enkarni Arrieta zinegotziak. Omenduak izan ziren merkatariak: Deba harategiko Jose Manuel Deba, Kux-kux arropadendako Mertxe Cobos eta M18 oinetakodendako Jose Angel Garicano. Halaber, ekitaldi berean Gabonetako erakusleihorik dotoreenak ere saritu ziren: Andreak jantziak, Nagusi optika eta Kilimak jostailu hezitzaleak.

DESBERDINTASUN EGOERAK BIZI AL DITUZU ZURE EGUNERO KOTASUNEAN?

Horixe da Herrilab egitasmoaren bitartez Beasaingo Udalak jakin nahi duena. Bizitza pertsonalean, profesionallean, senideen zaintzan edota familia harremanetan desorekarik nabari duzun, alegia.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Beasaingo Udalak martxan jarritako Herrilab egitasmoak. Horretarako, baina, herritarren eta eragileen laguntzarekin errealtitatea ezagutu nahi da lehendabizi. Ondoren atzemandako egoera horiek nola hobetu aztertzeko.

Dagoeneko zenbait bilera egin dira enpresariekin, herriko eragile ezberdinekin eta baita herritarrekin ere, baina parte hartzea ahalik eta altuena izan dadin, euskarri ezberdinak sortu dira beasaindarren iritzi eta ekarpenak jaso eta diagnosi osatuagoa egiteko.



¿Cómo podemos dar pasos hacia la igualdad en Beasain?

- En la vida personal
- En el ámbito profesional
- En el cuidado de la familia

Queremos conocer tu opinión.
Queremos escucharte.

PARTICIPA rellenando el cuestionario en

www.beasain.herrilab.eus

(Puedes hacer tus aportaciones hasta el 11 de enero)

PARTE HARTU NAHI AL DUZU?

Zure esperientziaren berri izan nahi dugu

Etxetik kanpo edo etxearen egiten duzu lan? Zaila egiten al zaizu bizitza pertsonala eta profesionala uztartzea? Etxeko lanen banaketa orekatua da? Senitartekoan zaintzaz arduratu behar duzu? Zaintzarako behar adina baliabide eta espazio publiko daudela uste duzu?

Galdera horiei erantzun nahi badiez sartu: www.beasain.herrilab.eus webgunean.

SAN SILBESTRE KROSEAN ERE BERDINTASUNA BERMATUZ



Azken edizioko berrikuntzarik nagusiena genero ikuspegitik berdintasunaren alde egin den urratza izan da. Sarietan, emakumezkoetan eta gizonezkoetan lehen hamabost sailkatuek saritan diru kopuru berdina jaso dute.

"Igualdad en los premios masculinos y femeninos en la última edición de la San Silvestre gracias al aumento de la ayuda del Ayuntamiento a Beti Bizi"

Erauskingo igoeraz gain, heziketa eta segurtasuna, II. Motor Asteburuan

2017an Erauskingo igoera berreskuratu nahi izan zen eta eskaintza osatze aldera heziketa eta segurtasunari lotutako ekitaldiak antolatzeko proposamena egin zuen Udalak. Joan den urteko arrakasta ikusita, beste urte batez, ekimena babestu eta bultzatu du Udalak heritarrei eta motor zaletuei ekimenez jositako asteburua eskaini ahal izateko.

Además de recuperar la subida de Erauskin, el pasado año, el Ayuntamiento quiso completar el fin de semana del motor con actividades ligadas a la seguridad vial y a la educación vial. Tras el éxito del 2018, el Ayuntamiento ha vuelto colaborar y subvencionar la iniciativa a fin de ofrecer nuevas alternativas de ocio a la ciudadanía.



Argazkiak: Ina Olaizola

Entregados los premios honoríficos Beasain Kirol Sariak 2018



Eneko Elosegi Beasain Kirol Sari Nagusia

Egitasmo hau 2016an abiarazi zuen Beasaingo Udalak herriko kirolariak eta kirol elkartek omentzeko helburuarekin. Aurten herritarrek proposatu dituzte hautagaiak, epaimahaiak erabaki ditu sarituak eta Udalak banatu du, beste behin, Beasain Kirol Sari Nagusia.

Por tercer año consecutivo los grupos deportivos y deportistas beasaindarras más destacados del año han sido premiados en la gala Beasain Kirol Sariak. Esta iniciativa fue puesta en marcha hace 3 años por el Ayuntamiento y este año por primera vez la ciudadanía ha sido la encargada de proponer las candidaturas a los premios.



Argazkiak: Iñaki Erauskin

UDALAREN SARIAK

Ibilbideari saria: Loinatz Klasika proba (Txirrindularitza) | Udal ohorezko saria: Aritz Elustondo (R. Sociedad)

SARITUAK

Babeslea: HINE | Emakumezkoak: Ane Etxezarreta (R. Sociedad) | Gizonetako: Eneko Elosegi (Triatleta) | Jardunaldia: Beasain Motor Asteburua

AIPAMENAK

Amaiur Marietzurrena, BKL infantil Handi, Beñat Turrientes, Ordizia Errugby, Ihintza Lekuona, Ander Alberdi, Errugby 16 azpikoak, Aizpurua neba-arrebak, Aitor Garmendia, Trigoi, Octavian Romanescu, Beñat Garmendia, Iñaki Mugika "Arrieta"

Beasain hizkuntza gutxituei buruzko Aditu ikastaroaren itxiera ekitaldian

Euskaraz adibide hartuta, hizkuntza gutxituak sustatzearen alde lan egiten duen Garabide elkartarekin Udalak sinatua duen hitzarmenaren baitan, Aditu ikastaroaren babesle izateagatik parte hartu zuen Aitor Aldasoro alkateak Hizkuntzaldia izeneko itxiera ekitaldian.

El alcalde Aitor Aldasoro participó en el acto de clausura del curso Aditu que tiene como objetivo ayudar a las comunidades indígenas en la revitalización de las lenguas minoritarias. Dentro del convenio firmado entre Garabide y el Ayuntamiento, Beasain acogió en octubre al grupo de representantes indígenas y el Euskaltegi municipal les impartió un módulo de este curso.



Eguberriak Beasainen

Ohiko ekitaldiez gain - Olentzero eta Mari Domingo ongi etoria, San Silvestre krosa, Eregeen zamalkada... - beasaindarrek jarduera ezberdinez osatutako egitarauaz gozatu ahal izan dute Gabonetan.

Además de dar la bienvenida a Olentzero y Mari Domingo, correr la San Silvestre para despedir el año y disfrutar de la cabalgata de los Reyes Magos, las y los beasindarras han podido disfrutar durante los días de Navidad de diversas actividades organizadas por el Ayuntamiento como los talleres para niños y niñas o el tren txu-txu que ha recorrido el municipio.



Concierto de Gospel en los bajos de la plaza

Se ha acondicionado un nuevo espacio para conciertos y distintos actos en el centro de Beasain gracias al revestimiento proyectado con el fin de mejorar la acústica de los bajos.



UDALA GARAI BERRIETARA EGOKITUZ



ENPLEGUA SUSTATZEKO ETA TOKIKO MERKATARITZA BABESTEKO

Online merkataritzarako aplikazioa

Udalak bi gazte kontratatu ditu aplikazio berria sortzeko eta merkatariak eta herritarra berau erabiltzera animatzeko.

Helburuak:

- Produktuak bezeroei gerturatzea.
- Merkataritzaren lehiakortasuna areagotzea online merkataritzaren mehatxu eta errealtitatearen aurrean.
- Erosketak egiteko aukera berriak sustatzea.
- Bizilagunen ordutegietara moldatu eta eguneroko erosketak erraztea.



Nueva aplicación para el comercio

El Ayuntamiento ha contratado a dos jóvenes Beasaindarras para la creación de una APP que promueva el consumo en el comercio local.

Estos jóvenes ya se han instalado en la incubadora de empresas Anezka y han comenzado a trabajar en la nueva APP que en un principio se pondrá en marcha ligado a productos alimenticios (pescaderías, carnicerías, fruterías...) haciendo que el comercio local de un salto al mundo digital.

Por medio de esta nueva APP el Ayuntamiento quiere ofrecer al comercio local una nueva oportunidad de negocio y a las y los beasaindarras mayores facilidades a la hora de realizar sus compras.

Gizarte nabarmen aldatu da azken urteotan, bereziki, teknologia berrien harira. Guziok egokitu behar izan dugu aldaketa horietara, baita udal administrazioak ere. Horregatik, Beasaingo Udalak hainbat neurri hartu ditu azken urte hauetan eta beste hainbat egitasmo abiarazi ditu administrazioa modernizatzeko, informazioa herritarrei gerturatzeko, erraztasunak emateko eta baita gardentasunaren alde urratsak egiteko ere.

Bide horretan, azpimarratzekoak dira Udalean txertatuden antolaketa egitura berria (3 batzorde: herritarrak, lurraldea eta antolakuntza), egitura berri horren baitan garatu den Legealdirako Kudeaketa Plana, pantaila digitalak, webgune berria edota TAOa kudeatzeko eta agenda kontsultatzeko sortutako aplikazioak.

La sociedad ha evolucionado y cambiado notablemente durante estos últimos años, en gran medida, debido a la utilización de las nuevas tecnologías e Internet. Con el objeto de adecuar la administración a los nuevos tiempos y a las nuevas exigencias de las y los beasaindarras y para que el Ayuntamiento sea una institución moderna, cercana y transparente:

Nuevo esquema organizativo y Plan de Gestión para la legislatura

- Paneles digitales y nueva web municipal
- Nuevas aplicaciones para móviles: gestión TAO y consulta de agenda cultural
- Portal de transparencia

INFORMAZIOA HERRITARREI HURBILTZEKO

Beasaingo Udalaren aplikazioa

Kultur agendatik haratago, Udalak herritarrengana gerturatzeko eta informazioa eskuragarri jartzeko helburuarekin urrats bat gehiago egingo du Udalak eta aplikazio berria sortuko du.

Herritarren intereseko informazioa jasoko da eta mugikorrean edozein kontsulta egiteko aukera izango dute herritarrek. Halaber, aplikazio berriaren bitartez parte hartzea eta herritarren implikazioa ere sustatu nahi dira martxan dauden parte hartze prozesuen berri emanet, ekarpenak egiteko aukera luzatuz edota Udalari idazteko aukera ere eskainiz.

Besteak beste, beraz, iradokizunak egiteko eta udalera idazteko aukera izango da, baina baita albisteak irakurtzekoa, agenda kontsultatzekoa, multimedia atala ikustekoa, sare sozialtara sartzekoa edota garraio ordutegiak begiratzekoa.

Hasi berri dugun urte honetan, beraz, herritarrek esku-eskura izango dute udal informazio guztia.



Toda la información en la nueva APP del Ayuntamiento

Este año 2019 el Ayuntamiento de Beasain pondrá a disposición de las y los beasaindarras un nuevo canal de comunicación con el objeto de acercar el Ayuntamiento y la información municipal a la ciudadanía.

La aplicación que está en vías de desarrollo, recogerá información de interés general para las y los beasaindarras e impulsará su participación e implicación por medio de nuevas canales de participación y comunicación con el Ayuntamiento.

2019ko UDAL ZERGA ETA TASEN ORDAINKETARAKO EGUTEGIA

CALENDARIO DE PAGOS DE IMPUESTOS Y TASAS MUNICIPALES 2019

2019 ZERGAK eta TASAK IMPUESTOS Y TASAS 2019	Borondatezko Kobrantza Pago voluntario	Helbideratutako kobrantza Recibos domiciliados
TAO egoiliar txartela Tarjeta residentes OTA	2019.01.02 - 2019.02.28	2019.01.31
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zerga Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica	2019.02.01 - 2019.03.31	2019.03.31
Ondasun Higiezinen gainekeko Zerga (OHZ) Impuesto sobre Bienes Inmuebles I.B.I.	2019.05.15 - 2019.06.30	2019.06.30
Ibilgailuak finka hiritarretan sartzea Entrada de vehículos en fincas urbanas	2019.09.01 - 2019.10.31	2019.10.31
Ibilgailuen kokalekua eta geralekua Parada y situación de vehículos	2019.09.01 - 2019.10.31	2019.10.31
Jarduera Ekonomikoaren gainekeko Zerga (J.E.Z.) Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.)	2019.10.01 - 2019.11.10	2019.11.10
Zabor-bilketa - Urteko kuota Recogida de Basuras - Tasa anual		
1. ordainketa 1º pago	2019.03.01 - 2019.04.30	2019.04.30
2. ordainketa 2º pago	2019.09.01 - 2019.10.31	2019.10.31

- * Egutegi honetan urteko Udal zerga eta tasen ordainketarako azken eguna gorri eta helbideratutako ordainagirien kobraztze eguna urdinez koloreztatu dira
Eperako ordaindu ezean, hurrengo egunetik aurrera gainkarguak ezartzen dira. Hauek saihesteko, ondorengoa kontutan izatea komeni da:
- Helbideratuta badago: saldoa badagoela eta ez dela aldaketarik egin (kontu aldaketa edo ezereztea) edo hala bada, jakinarazi dela.
 - Helbideratuta ez badago: ordainketa egiteko agiria jaso dela.

* En este calendario se ha coloreado en rojo el último día de pago, y en azul el día de cobro de los recibos domiciliados de cada uno de los impuestos y tasas anuales

En caso de impago, a partir del día siguiente se generan recargos. Para evitarlos, conviene asegurarse previamente de:

- Si está domiciliado: que existe saldo suficiente y no se han producido modificaciones (cambio o cancelación de cuenta) o en su caso, que ya se han comunicado.
- Si no está domiciliado: que se ha recibido el documento para realizar el pago.

JAKINARAZPENA NOTIFICACIÓN

OHZaren ordainketarako hobariak familia ugarentzat Bonificaciones en el IBI para familias numerosas
Eskaria egiteko epea 2019.01.31 arte Plazo para la solicitud hasta el 31.01.2019

DATUEKIN JOLASEAN

Usurbe antzokiaren erabilerak eta zine zaletuen kopuruak gorakada izan dute azken urtean.

¿Sabes cuántas personas asisten al cine Usurbe cada temporada y cuántas por película comercial?

Denboraldia Temporada	Asistentzia osoa Asistencia total	Zine komertziala Cine comercial	Ikusle filmeko Personas por pelicula
2015-2016	37.076	18.018	368
2016-2017	36.102	17.912	366
2017-2018	38.549	18.637	380

LOTURAK ENLACES



- **Antzizar kiroldategia**
www.antzizar.net
- **Udal Euskaltegia**
www.beasain.eus/euskaltegia
- **kzGunea**
www.kzgunea.eus
- **Igartzako Monumentu Multzoa**
www.igartza.eus
- **Musika Eskola**
www.beasaingomusikaeskola.eus



Lege gordailua SS 403-2016



www.beasain.eus

